

SECCION AMENA**ILLE BELTZA ETA ZURIYA**

Ille beltza da apaingarritzat
Daukaguna guk buruan,
Izan oi diran bezela lore
Churi gorriyak soruan:
Ta da indartzen sustrayetatik
Berezko koipe gozuan,
Egon dediyen zelayetako
Landare ayen moduan.

Apainaingarritzat zeguelarik
Eder iritziz batian,
Ager zitzayon ille zuri bat
Beltzari leku eskian;
—Otzak nago, ta berogarriya
Nai nuke zure artian,
Utzi nazazu zugana sartzen
Ta biziko naiz pakian.—

Au zion esan ille zuriyak
Beltzari biziго gozo,
Ikusirikan zala bizitzen
Lasai ta guztiz eroso;
Bakartasunak zeukan jarriya
Izaeraz chit penoso,
Arki zalako arrimo gabe
Indar galdurik nekoso.

Beltzak, aiñ bakar ikusirikan
Negargarri ta tristia,
Erantzun ziyon:—ez det pentsatzen
Zuri aterik istia;
Bañan naiko det nere aginduz
Ertz ezkerrera jeistia,
Eta landare berri modura
Zañak ondo ichastia.—

Au aditurik sartu zan ille
Beltz ederrakin katian,
Andik aurrera asirik bere
Lagunentzako lanian;
Eta aserre leku berriyan
Aiñ ondo arki zanian,
Beltzak banaka bigaldurikan
Nausi jarri zan gañian.

JUAN IGNACIO URANGA.

